


2006ko laugarren hiruhilekoan, 14 urte baino gehiagoko Euskadiko biztanleen %41,6 Interneteko erabiltzaile da

Interneten bidez erosketak egiten dituzten internauten kopurua %19,1 igo da

Eustaten datuen arabera, Euskal AEko 14 urte edo gehiagoko interneten erabiltzaileak 766.400 izan dira, 2006ko azken hiruhilekoan, hau da, adin horretako Euskal AE osoko %41,6. Ehuneko horrek %1,5eko hazkundea ekarri du urte bereko bigarren hiruhilekoaren aldean. Hala ere, joan den urtearen aldean, hazkundea %10,9 izan da.

Lurralde historikoen arabera, Bizkaian igo da gehien erabiltzaile-kopurua, %4 hain zuzen ere, 2006ko bigarren hiruhilekoaren aldean. Beraz, Interneten erabiltzaileen ehunekoari dagokionez, bigarren tokian geratu da, %41,5ekin. Gipuzkoa da erabiltzaileen ehuneko handiena izaten jarraitzen duen lurraldea (%42,8). 2006ko bigarren seiuhilekoan %1eko hazkundea izan du. Araban, ordea, Interneten erabiltzaileen kopurua jaitsi egin da laugarren hiruhilekoan. Ehuneko 2,7 puntu jaitsi da eta 14 urte edo gehiago dituzten Interneten erabiltzaileen kopurua %39,4 izan da zehazki.

1. grafikoa. 15 urte eta gehiagoko biztanleen bilakaera, etxean IKT hornikuntzetarako sarbidearen arabera, hiruhilekoei jarraiki. 1999-2006. %



Iturria: EUSTAT

65 urte eta gehiagoko erabiltzaileak %12,8 igo dira

Adina kontuan hartuta, 65 urte eta gehiagoko erabiltzaileak nabarmendu dira. Adin-tarte horretan %12,8ko hazkundera izan da 2006ko bigarren hiruhilekoaren aldean. Era berean, 25 eta 34 urte bitartekoen artean %4,4ko hazkundera izan da.

Generoen arteko tarte esaten zaiona ehuneko 7,2 puntukoa izan da 2006ko laugarren hiruhilekoan, bigarren hiruhilekoan ehuneko 5,7 puntura murriztu bada ere. 15 urte eta gehiagoko biztanleei dagokienez, mutilak diren interneteko erabiltzaileak %45,3 izan dira eta emakumezkoak %38,1. Hartara, 2006ko laugarren hiruhilekoan izan diren Interneteko erabiltzaile guztien artean, %53 gizonak dira eta %47 emakumeak.

Jardueraren ildoan, landunen artean Interneteko erabiltzaileek %3,5eko gorakada izan dute 2006ko bigarren hiruhilekoaren aldean. Ikasleei dagokienez, ehunekoa %3,3 jaitsi da eta pertsona ez-aktiboen eta langabetuen ehunekoa %2,3. Bestalde, lantokietako konexioak %2,8 igo dira. Ikasteko tokietan, ordea, Interneterako sarbidea %4,2 murriztu da. Etxeetan %1,8ko hazkunde txikia egon da, eta beste toki batzuetan, berriz, hala nola ziberkafetegietan, hoteletan, aisialdiguneetan... hazkundera askoz ere handiagoa izan da, %21,5ekoa hain zuzen ere.

Interneten nabigatzeko ingelesaren gorakada

Ingelesez *nabigatzen* duten erabiltzaileen ehunekoa %19,2 hazi da. Aitzitik, euskaraz nabigatzen dutenen ehunekoak %1,5eko gorakada izan du eta gaztelaniaz nabigatzen dutenenak %2,4koa. Interneteko konexioen batez besteko iraupena 45,7 minutukoa izan da 2006ko laugarren hiruhilekoan. Beraz, urteko bigarren hiruhilekoaren aldean bi minutu eta erdi laburragoa izan da.

Azken hiruhilekoan, 14 urte baino gehiagoko Interneteko erabiltzaileen %24,5ek produktuak edo zerbitzuak sarearen bidez erosi ditu

Internet bidez erosi duten pertsonen kopuruak goranzko joera izan du. 2006ko azken hiruhilekoan 30.100 pertsonak erabili dute Internet era askotara. Beraz, 187.700 erabiltzaile baino gehiago izan dira sarearen bidez erosketaren bat egin dutenak. Zifra horren arabera, 2006ko bigarren hiruhilekoan %19,1eko hazkundera egon da.

IKT hornikuntzetarako sarbideak gorantz egiten jarraitzen du Euskal AEko etxeetan

Informazioaren eta komunikazioaren teknologien ekipamenduek hedatzen jarraitzen dute Euskadiko etxeetan. 2006ko laugarren hiruhilekoan, Euskal AEko etxeen %53k ordenagailua zuten. Horrek esan nahi du urte bereko bigarren hiruhilekoan zeudenak baino %4 gehiago egon direla, eta aurreko urteko hiruhileko berean baino %7,2 gehiago egon direla.

Interneterako sarbideari dagokionez, ia 320.000 familia dira, hau da, %40 baino gehiago, etxean zerbitzu hori dutenak. Beraz, 2006ko azken hiruhilekoan Interneteko konexioa izan dutenak baino 12.000 pertsona gehiago izan dira. Urteko balioen harira, Internetera sarbidea duten etxeak 2005ean baino ia %12 gehiago izan dira. Era berean, sarera sarbidea duten 14 urte baino gehiagoko biztanleen kopuruak gora egin du 22.900 pertsonekin, hau da, ehuneko 1,3 puntu igo da. Beraz, etxean Internet erabiltzeko aukera duten pertsonen kopurua 906.000 baino handiagoa izan da.

Bestalde, %85,6 etxek dute telefono mugikorra eta telefono finkoarekin batera mantendu da, etxeen %93 baino gehiagotan biak batera baitaude. 14 urte baino gehiagoko biztanleak kontuan hartuta, hornikuntza hori duten pertsonen ehunekoa %91,2raino igotzen da, hau da, 2006. urteko bigarren hiruhilekoan baino ehuneko 1,8 punturaino.

1. taula. Informazioaren gizarteari buruzko inkesta (IGI), familiak

	2006ko 4. hiruhilekoa		Aldakuntza, 2006ko 2. Hiruhilekoarekiko		Aldakuntza, aurreko urteko hiruhileko berarekiko	
	Milakoak	%	Milakoak	* ALD., % P	Milakoak	* ALD., % P.
ETXEKO HORNIKUNTZAK						
FAMILIAK	787,0	100,0				
Ordenagailu pertsonala	417,0	53,0	15,9	1,5	28,1	2,9
Telefono mugikorra	673,7	85,6	30,1	2,9	42,6	4,4
Internet	319,6	40,6	12,0	1,1	33,2	3,7
Seme-alabadunak	251,0	58,4	1,3	0,4	19,1	4,9
Bikotearekin bakarrik	42,3	25,5	7,0	3,9	11,8	6,5
Bakarrik bizi diren banakoak	26,4	13,8	3,7	1,5	2,4	0,6
15 URTE EDO GEHIAGOKO BIZTANLEI	1.840,7	100,0				
Ordenagailu pertsonala	1.154,7	62,7	25,3	1,4	49,5	2,6
Internet	906,9	49,3	22,9	1,3	77,7	4,2
Ordainpeko telebista	325,1	17,7	89,7	4,9	153,4	8,4
Lurreko telebista digitala	158,1	8,6	67,3	3,7	123,5	6,7
Bideoa	1.291,8	70,2	-51,3	-2,7	-76,2	-4,2
DVD	1.335,4	72,5	54,8	3,0	119,3	6,4
Telefono mugikorra	1.678,0	91,2	32,0	1,8	50,3	2,7
INTERNET-ERABILTZAILAK	766,4	41,6	11,3	0,6	75,2	4,0
Gizonezkoak	405,7	45,3	12,5	1,4	33,4	3,7
Emakumezkoak	360,7	38,1	-1,1	-0,1	41,8	4,3
Araba	102,3	39,4	-7,0	-2,7	3,7	1,2
Bizkaia	412,6	41,5	15,9	1,6	56,0	5,6
Gipuzkoa	251,5	42,8	2,5	0,5	15,5	2,6
15-24 urte	165,7	83,1	-0,3	2,1	0,7	4,6
25-34 urte	235,0	69,7	9,9	3,2	31,3	10,0
35-44 urte	179,4	52,0	0,8	-0,3	17,0	4,8
45-54 urte	127,1	41,2	-2,0	-0,2	15,4	4,2
55-64 urte	50,4	19,7	1,8	0,5	10,2	3,7
65 urte edo gehiago	8,8	2,2	1,0	0,2	0,6	0,1
Ikasleak	141,5	93,6	-4,8	4,3	-2,9	6,1
Landunak	534,4	55,4	18,3	0,1	65,9	5,8
Ez-aktiboak eta langabeak	90,5	12,5	-2,1	0,1	12,3	1,8
Etiketarik sartzen dira	583,1	76,1	10,4	0,3	59,0	0,3
Lantokitik sartzen dira	340,1	44,4	9,2	0,6	50,2	2,5
Ikastetxetik sartzen dira	103,7	13,5	-4,5	-0,8	3,1	-1,0
Beste leku batetik sartzen dira	75,7	9,9	13,4	1,6	11,5	0,6
Euskaraz nabigatzen dute	168,6	22,0	2,5	0,0	30,1	2,0
Gaztelaniaz nabigatzen dute	764,1	99,7	17,9	0,9	78,1	0,5
Ingeleseaz nabigatzen dute	178,5	23,3	28,8	3,5	41,2	3,4
Internet bidez erosi du	187,7	24,5	30,1	3,6	29,8	1,7
Azken konexioaren batez besteko iraupena.	45,7		-2,5		-0,3	

* ALD., % P. = Aldea, ehuneko-puntutan

Iturria: Eustat

Informazio gehiago nahi izanez gero:

Euskal Estatistika-Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastian kalea, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz

Tel.: +34-945-01 75 00 Faxa: +34-945-01 75 01 Posta elektronik.: eustat@eustat.es

Harremanetarako pertsona: Pilar Martínez Rollón

Tel.: +34-945-01 75 36 Faxa: +34-945-01 75 01

Prentsa-oharrak Interneten: www.eustat.es

Datu-banku: www.eustat.es/bancopx/euskara/indice.asp